

Master Amaierako Lanaren gida

Master Amaierako Lana (MAL) egitea derrigorrezkoa da. Lan hau egiteko orduak esleitutako 14 ECTS kredituen barruan daude. Helburua Ingeniaritza Biomedikoko lanbide-profiletako batean esperientzia praktikoa eskuratzea da, industria-, osasun- edo ikerketa-esparruan.

Lanak originala izan behar du, eta masterrean landutako gaietako bati buruzko garapen-lan bat izan behar du (eduki teorikoak nahiz praktikoak). Lana egiteko, kanpoko praktiketan parte hartzen duten erakundeen laguntza izan daiteke:

- Osasun-teknologiaren sektoreko enpresak
- Osasun-zentroak
- Arlo honetan jarduten duten I+G+b zentroak

Prozedura

1. Ikasleak MALaren gaia eta zuzendaria proposatuko ditu (borondatezko adostasunez). MAL Batzordeak ikasleak proposatutako gaiaren eta zuzendariaren egokitasuna berretsiko du. Bestela, Batzordeak aurrez prestatutako zerrenda batetik esleituko ditu gaia eta zuzendaria. Batzordeak lanen garapen egokia zainduko du eta sor daitezkeen arazoak ebatziko ditu.

2. Lanak gehienez 40 orrialde izango ditu, bibliografia barne. Edozein lan zientifikoren egitura normalizatura egokituko da: laburpena, sarrera, helburuak, materialak eta metodoak, emaitzak eta eztabaida, ondorioak eta bibliografia, Vancouver araudiari jarraituz. Garapena osatzeko eskemak, marrazkiak edo bestelako baliabideak erabil daitezke.

3. Defentsa publikoa gehienez 10 minutuko ahozko aurkezpena izango da, eta ondoren gutxienez 5 minutuko eztabaida egingo da Ebaluazio Batzordearekin (Epaimahaia). Defentsa bideokonferentzia bidez egingo da, ikasleak kontrakoa eskatu ezean.

Epaimahaia masterreko hiru irakaslek osatuko dute. Honako alderdi hauek baloratuko dira: gaiaren originaltasuna, garapenaren sakontasuna, lanaren orientazioa, fabrikazio-tekniken egokitasuna, prototipoen espero diren emaitzak, aurretiazko merkatu-azterketak eta abar (ikus erantsitako ebaluazio-fitxa).

MALa iraileko bigarren hamabostaldian defendatuko da, aurreikusitako egutegiaren arabera.

Lanak aldeztu aurretik zuzendariari bidaliko zaizkie, ebaluazio-txostena egin dezaten. Txosten hori Batzordeari helaraziko zaio eta epaimahaiaren azken ebaluazioan kontuan hartu ahal izango da.

MALen egileen eskubideak Jabetza Intelektualari buruzko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak eta aplikatu beharreko gainerako araudiek babesten dituzte, ikasleak dagozkion lagapen-agiriak sinatu ezean.

Masterraren kolaboratzaile diren enpresekin egindako MALetan, jabetza intelektuala/industrialia eta erabilitako datuen konfidentzialtasuna dagozkien hitzarmenetan arautuko dira.

UPV/EHUko Ingeniaritza Biomedikoko Masterra

Ikaslearen izena:		
Lanaren titulua:		
Zuzendariaren izena:		
Deialdia:	Ohikoa	Ezohikoa

EBALUAZIOKO IRIZPIDE ORIENTAGARRIAK

		Gutxiegi 0-4	Ondo 5-7	Oso ondo 8-10	Balorazio orokorra [0-10]
EDUKI TEKNIKOA (%60)	<i>Sarrera</i>	Berrikuspen bibliografikoa eta aurrekari nahasiak eta desegokiak	Berrikuspen bibliografikoa eta aurrekari egokiak, baina hobetu daitezke	Errebisio bibliografikoa eta aurrekariak oso ondo eginda daude	
	<i>Hipotesiak/ Helburuak</i>	Ez dira egokiak	Ongi zehaztuak baina oinarri ahulekoak	Oso ongi zehaztuak eta berrikuspen bibliografikoan oso ongi oinarrituak	
	<i>Materialak eta metodoak</i>	Metodologia eta material eskasak, aurkeztutako emaitzekin bat ez datozenak	Metodologia eta materialak deskribatzen dira, baina informazioa falta da	Metodologia eta materialak xehetasunez deskribatzen dira, eta datuen/estatistikar en analisia deskribatzen da	
	<i>Emaitzak eta eztabaida</i>	Irudiek eta taulek ez dituzte emaitzak ondo jasotzen; ez dira argiak eta gaizki azalduta daude. Eztabaida ez da egokia	Irudiek eta taulek ondo jasotzen dituzte emaitzak baina azalpen hobea behar dute. Eztabaida egokia da baina hobetu daiteke.	Irudiek eta taulek ezin hobeto jasotzen dituzte emaitzak; argiak dira eta ondo azalduta daude. Eztabaida ona eta argia da.	
	<i>Ondorioak</i>	Ez da ondoriorik atera edo okerrak dira eta aurkeztutako emaitzetatik haratago doaz	Ondorio gehienak zuzenak dira, eta ez dira aurkeztutako emaitzetatik haratago joaten	Ateratako ondorioak egokiak dira eta aurkeztutako emaitzetan ederki oinarritzen dira	
	<i>Bibliografia</i>	Ez oso egokia edo oso eskasa; gaizki aipatua eta deskribatua, akats askorekin	Egokia baina eskas samarra; ondo aipatua baina akats batzuekin	Egokia eta zabala; ondo aipatua eta akatsik gabekoa	

IDATZIZKO LANA (%10)	<i>Idazketa, gramatika eta ortografia</i>	Ulertzeko zaila den testua. Hiztegia eta puntuazioa ez dira zuzenak. Akats ortografikoak ditu	Testu argia eta irakurterraza, hiztegi zuzena eta zientifikoa duena, baina hobetzeko modukoa. Puntuazio- edota gramatika-akats batzuk	Testu argia eta irakurterraza, hiztegi zuzen eta zientifikoarekin. Puntuazio, ortografia eta gramatika zuzena	
	<i>Edizioa (formatua, azala, aurkibidea, laburdurak)</i>	Alderdi formal askotan eskasa	Eskasa alderdi formaletako batean. Onargarria gehienbat	Kalitatezkoa alderdi formal guztietan	
AHOZKO AURKEZPENA (%30)		Korapilotsua eta egindako lanarekin bat ez datorrena. Ez ditu galderak erantzuten edo gaizki erantzuten ditu	Hobetzeko modukoa. Egindako lanaren alderdiren bat falta da. Galderak segurtasunik gabe erantzuten ditu	Txukuna, argia eta atsegina. Oso ondo egokitzen zaio egindako lanari. Hizkuntza zehatza eta zientifikoa. Ondo erantzuten ditu galderak	

* Zuzendariaren txostenaren balorazioak orientazio-balioa baino ez du izango.

Iruzkinak	
Balorazio orokorra	Gutxiegi / Ondo / Oso ondo

Data eta sinadura